

# Biarritzen etxe batean

*Herrikoa*

*Mold: Aitor Amezaga*







© 2009 by Aitor Amezaga




Biarritzen etxe batean
joan den arratsaldean
neskatila dantzatu da
sei mutilen artean,
tranlaralan laran laran
sei mutilen artean.

Soinua entzunda plazara
joaten dira dantzara,
elkarrekin jostatuaz
dute nahiko algara,
tranlaralan laran laran
dute nahiko algara.

Biarritzen beti mutilak
txit maite neskatilak;
borondatez dizkiete
ematen erroskilak,
tranlaralan laran laran
ematen erroskilak

Ilunabarra etortzean
pozkida bihotzean
neskatilen etxeraino
laguntzeko pozean,
tranlaralan laran laran
laguntzeko pozean

Neskatilatxo lehunak
dira gure lagunak,
oso maitatuak gara
gu frantses euskaldunak,
tranlaralan laran laran
gu frantses euskaldunak.

